



2017

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



UDABERRIKO EUSKAL KULTURALDIA
TIEMPO DE FLORES PARA LA CULTURA VASCA
TIME OF FLOWERS FOR THE BASQUE CULTURE
LE TEMPS DES FLEURS DE LA CULTURE BASQUE

3.

EUSKAL KULTURA GAUR
2017 AZAROAREN 7TIK APIRILAREN 8RA
BILBO

**HIRUGARREN
LORALDIA**

EMOZIO FESTA!





WWW.LORALDIA.EUS



2017

EMOZIO FESTA!



UDABERRIKO FESTIBALA

**HASIERA: AZAROAREN 7AN, ARRIAGA ANTZOKIAN.
AMAIERA: APIRILAREN 8AN, CAMPOS ANTZOKIAN.**

Gaurko euskal kultur adierazpenen bidegurutzea:
Musika, teatroa, dantza, zinema, ikus entzunezkoak, bertsolaritza,
arte plastikoak, literatura, performance, haur ikuskizunak...

Elkarlanean sortzen den festibala:
Bilbao 700 Fundazioa, Guggenheim Museoa, Arriaga Antzokia,
Azkuna Zentroa, Pabellon 6, Elkar Fundazioa, Mikel Laboa Katedra,
SGAE, EHU, EITB, Azkue Fundazioa, Badok...

**2017KO
SORTZAILEAK****29 JARDUNALDI****30 IKUSKARI BAINO GEHIAGO**

**ANTON ABBADIA. ALAIA MARTIN, AMURIZA, OIHANA
BARTRA, AGUS BARANDIARAN, MIKEL URDANGARIN,
IZARO, ZZIO, ACYKAL & LAYIEE, EH2000& LAIZE, MIKEL
LABOA, DANTZAZ, AITOR AMEZAGA, DONOSTIAKO
MUSIKA ESKOLA, KUKAI, IÑAKI SALVADOR, GORKA
BENITEZ, ANGEL CELADA, IRATXE FRESNEDA, AMORANTE,
LOGELA MULTIMEDIA, GARCIA LORCA, DALÍ, BUÑUEL,
KONPAINIA GAZTEA-PS, JOKIN OREGI, MIREIA GABILONDO,
GARBI LOSADA, FERNANDO BERNUES, PATXO TELLERIA,
MIKEL MARTINEZ. LOU TOPET. EÑAUT ELORRIETA, XABI
ABURRUZAGA. PETE SEEGER. KIRMEN URIBE, ANGEL UNZU,
AIORA REMENTERIA, MAMBA BEAT. TXORIAK NEGUTEGIAN.
HESIAN. LUKIAK. ITU BANDA. HARKAITZ CANO, JUANRA
MADARIAGA, UNAI ELORRIAGA, SABIN BIKANDI, MIKEL
KROLEM, DARIO FO, LUTXO EGIA, MIKEL INUN...**

3. EDIZIOA. EUSKAL KULTUR SORMEN GARAIDEA

GAURKO KULTURA DUGU HELBURU. ESTREINALDIAK, PRODUKZIO PROPIOAK, AZKEN SORMENAK... PLAZARATUKO DIRA FESTIBALEAN. MODERNITATEA DA GURE BANDERA.

PRODUKZIO PROPIO IKUSGARRIAK

STRIP TEASE ikuskizunak gaur egungo lau teatrogile nabarmen biltzen ditu: Fernando Bernues, Mireia Gabilongo, Jokin Oregi eta Garbi Losada.

EUTSIKO DIOGU PETE! THE SEEGER BASQUE SESSIONS. Ipar Amerikako folk sortzailerik handienetakoa den Pete Seeger gureganatuko dugu. Lou Topet taldearen gidaritzapean hainbat musikari oso ezagun atarako dira tauletara kanta historiko horiek moldatzeko.

AMURIZA. Xabier Amurizaren koplak Agus Barandiaran (Korrontzi) trikitilariaren eskutik. Sorkuntza berri honetan ere hainbat kantugile nabarmen izango dira lagun.

AURRENEKOA UMOREA

Ez dok Hiru (Patxo Telleria eta Mikel Martinez) konpainiaren eskutik zabalera ekitaldia antolatu dugu. Umerez josita den sormena. Euskal musikaren historia xelebrea, hain zuzen.

GAZTE KONPAINIA

Pabellon 6rekin elkarlanean Gazte Konpainiaren aldeko apostua egin dugu eta Lorca Buñuel Dali ikuskizunaren euskarazko moldaketa estreinatuko dugu. Hemen sortzaileak gazteak dira eta xede estrategiko jarri dugu.

MUSIKA GUZTIAK

Hip hop (2zio), Elektronika (Mamba Beat eta Txoriak Negutegian), Pop (Mikel Urdangarin), rock (Hesian, Lukiak...) folk (Aburruzaga, Izaro, Amorante, Amuriza...), sinfonikoa (Aitor Amezaga)... Gazte tribu guztiei begira.

ARTE ARLOEN ARTEKO ELKARLANA

Gustuko dugu arte arloen arteko esperimentazioa. Arte plastikoak eta bertsolaritza / dantza eta zinema / literatura eta musika...

MUSIKA BI ESTREINALDI NABARMEN

Mikel Urdangarinen azken diskoaren estreinaldi mundiala eta Xabi Aburruzagaren azken sorkuntzaren nazioarteko aurkezpena.

Mikel Laboa eta Kirmen Uribe Guggenheimeko Topartean

Laboa, gure musikari garaikidea museoan sartuko da eta Atrioan dantza bihurtuko da. Kirmen Uribe, berriz, geroari mintzo egingo da.

DANTZA GUREA

Kukai euskal dantza berritzaile handiena den taldeak errepasoa emango dio haren ibilbideari eta Dantzaz talde garaikideak Laboa dantza mundura murgilduko du.

LITERATURA BERRIZTEN

Itxaro Borda, Kirmen Uribe, Juanra Madariaga, Unai Elorriaga, Lutxo Egia... eskarmentu handiko idazleek berba berria ekarriko dute.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR 

3. HIRUGARREN LORALDIA

Primaderako Festibala abian da, loreen urtaroa hasi baino lehen. Negu eta udaberriaren zubia da aurtengoa. Zubiak ditugu gustuko. Zubiak eraiki ditugu inguruko kulturekin. Ipar Amerikako folk aitzindariak, Penintsulako surrealismoa, Zeltiar musika edota Londreseko hip hopa, besteak beste, gurean izango dira. Zubiak loratuko dira, ez baitugu ulertzen sorkuntza elkarlanik gabe.

“Zure arnasa zait, maitea, bizigarri hezea, eguzkitik ilargira datorkidan haizea” idatzi zuen Xabier Amurizak Oskorrik kantu bat egin dezan. Izan dadila Loraldiaren iparrorratza. Berritzailea eta bizigarria. Zinez miresten dugu Amuriza kultur esploratzaileak zabaldu dituen bideak.

Anphora hautsi da, trikuak milaka hitz ikasi ditu, “Beste Ez Dok Amairu bat behar da egun. Zerbait apurtzailea” aldarrikatu zuen Benito Lertxundik. Loraldia adi dago eta aurten erantziko gara. Euskal kultura modernuaren strip-tease hau zirrara sortzeko asmoarekin plazaratu dugu.



2017 PROGRAMA

A

**MARTXOAREN 7AN ETA 8AN,
ASTEARTEAREKIN ETA OSTEGUNAREKIN.**

**EUSKAL MUSIKAREN BENETAKO HISTORIA**

ARRIAGA ANTZOKIA

19:30

EZ DOK HIRU**Patxo Telleria eta Mikel Martinez
(umore teatroa + musika)**

60 min

Patxo Telleria eta Mikel Martinezen teatro lan berria. Bikoteatroa eratu zenetik barre algara handiak egin ditugu euren elkarrizketa zoroekin. Estilo propioa honetan umorea eta ironia dira arma bakarrak. Ez dok hiru taldeak estreinaldi honetan aurrerapausu bat eman du. Teatro xelebraz gain, hiru musikari izango dituzte eszenan. Euskal Musikaren historiaren berrikusketa harrigarria eta barregarria izango da, zalantarik gabe.

**eSPEDIZIOA:****MENDI OROREN PISUA**

AZKUNA ZENTROA

19:30

**Juanra Madariaga + Unai Elorriaga
(errezitaldia + ikus-entzunezkoa)**

60 min

Himalaiako Shisha Pangma mendira eginiko espedizioan Juanra Madariaga Unai Elorriagaren Sprako Tranbia liburuaren eraman zuen bidelagun. Mendizale eta idazleak espedizioak sortzen zizkion beldurrak, lilurak eta natura sortzen den poesia Lucasekin, Unai Elorriagaren liburuaren protagonistarekin, konpartitu zituen. Literatura eta ingurune hartan finkatutako harreman hartatik sortu da lan hau. Testu literarioak Himalaia mendikateko musikekin eta irudiekin bat egingo dute

**MARTXOAREN 10EAN, 11N ETA 12AN,
OSTIRALAREKIN, LARUNBATAREKIN
ETA IGANDEAREKIN**



LORCA, DALI, BUÑUEL ABORIGENAK
PABELLÓN 6

Ostiralean eta larunbatean: 20:00etan
Igandean: 19:00etan

Pabiloko Konpainia Gaztea
(teatroa + dantza + musika)

80 min.

García Lorca, Buñuel eta Dalí artistek eraman zuten surrealismoa azken mugaraino. Sortzaile hauen lana abiapuntua harturik teatro lan bat osatu du Felipe Lozak: Aborigenak. Federico García Lorcaren lan poetiko eta dramatikokoaren collage. Pabellón 6 espazioaren ekoizpena da eta euskarazko bertsioa Loraldiarekin elkarlanean plazaratuko du. Konpainia Gazteak iaz eman zion hasiera bideari eta Euskal Herriko aktore gaztez osaturik dago. Euskal antzerkigintzaren kimu berriak, hain zuzen. Sormen honetan Lorcaren bizitza, poesia, teatro lanak eta haren



MARTXOAREN 11N, LARUNBATAREKIN.

MIKEL URDANGARIN
CAMPOS ANTZOKIA

19:30
Mikel Urdangarin + banda (musika)

90 min.

Mikel Urdangarin bide luzeko kantugilea dugu. Euskal musikaren historian sortzaile nabarmen eta emankorra. Grabazio berri bat burutu du negu honetan eta Loraldian aurkeztuko du. Lan berriaren estreinaldia. Musikari handiz osatutako bandarekin igoko da eszenatokira kantu berriak plazaratzeko.

**MARTXOAREN 12AN,
IGANDEAREKIN.**

TXORIAK
MIKEL LABOAREN UNIBERTSORAKO BIDAIA
GUGGENHEIM ATRIOA
12:30

Dantzaz Konpainia
(dantza garaikidea)

50 min.

Mikel Laboaren kantuak abiapuntua harturik Dantzaz Konpainiak, Lekeitiko Kale-Antzerki Nazioarteko Jaialdiarekin batera, koreografia eder eta garaikideak sortu zituen itsasbazerrean. Orain Guggenheimeko atrioan entzungo dugu Mikel Laboaren zilarrezko ahotsa eta Dantzaz konpainiako dantzari gazteen interpretazioak Donostiako kantariaren eremura eramango gaitu. Laboa kantugile berritzailearen lana mugimendu bihurturik museo moderno honek eskaintzen duen paisaia garaikidean kokatuko da.

E

**MARTXOAREN 15EAN,
ASTEAZKENAREKIN.**

DARIO FO AKORDUAN
CAFE BAR BILBAO
19:00

Mikel Martinez
(teatroa, bakarrizketa)

60 min.

Dario Fo akorduan. Mikel Martinez aktoreak Dario Foren testu batzuk aukeratu eta bakarrizketa formatuan aurkeztuko ditu. Urrian joan zitzaigun teatrogile handiaren ironiak eta salaketak gaurkotasuna ez dute galdu.


**MARTXOAREN 16AN,
OSTEGUNAREKIN.**

HIRI HORI DA HIRI HAU

AZKUNA ZENTROA

19:30

**Lutxo Egia + Mikel Inun
(literatura + musika)**

60 min.

Bilbon, azken urteotan, hamaika hots desagertu dira beste batzuk sortu dira, eta idazleek errealitate berrira egokitzea beste aukerarik ez dute izan. Baina jakin ote dute asmatzen? Hiri hori da hiri hau emanaldian Lutxo Egiak eta Mikel Inunek hiriaren gaineko gogoeta plazaratzen dute hitzez, hotsez, soinuaz eta musikaz


**APIRILAREN 7AN
OSTIRALAREKIN.**

AMORANTE**ABBADIAREN LORE JOKOEN POESIAK**

AZKUNA ZENTROA

20:00

**Amorante
(musika)**

60 min.

Proiektu honen atzean Iban Urizar musikaria dago. Hainbat taldetan aritu ondoren haren bakarreko bideari ekin dio. Amorante hartu du izen eta emanaldi honetan pieza berri batzuk estreinatuko ditu. Anton Abbadiaren garaiko Lore Jokoetan irabazitako poemak musikatuko ditu eta gaurko musika garaikidearen eremura ekarriko ditu. Horrez gain, aspaldiko koplak, flamenkoa, Afrikako musika eta tradizio anitzeko musika jorratzen ditu. Esperimentazioan ere eroso kokatzen da. Erraietatik ateratzen duena kantu bihurtzen du gitarra, ahotsa, harmoniuma eta tronpetaren laguntzaz.

**MARTXOAREN 18AN
LARUNBATAREKIN****KUKAI & LAGUNAK**
CAMPOS ANTZOKIA

19:30

Kukai Dantza Konpainia + Iñaki Salvador + Oreka TX + Juan Mari Beltran + Sabin Bikandi + Patxi Laborda + Lekeitioko dantzariak + ... (dantza + musika)

90 min.

Kukaik 15 urte bete berri du euskal dantza mundua berritzen eta eraldatzen, etengabeko sorkuntzan. Ibilbide luze eta emankor honetan bidaide izan dituen hamaika lagun bildu eta ikuskizun handi eta ikusgarri taularatuko du. Musika eta koreografia uztartzen duen lan apartekoa. Jai handi bat dantza eta doinu garaikidez orniturik.

**BILBRONX**
AZKUNA ZENTROA

21:00

Hip Hop + Euskal Herriko 1. Scratch Lehiaketa + Parkour + Body modification
(musika + dj + parkour + tatuajeak)

180 min

New Yorkeko Bronx auzoan sortu zen kaleko kultura Bilbora ekarria. Horra hor Bilbronz eremuko bigarren edizioa. Berriro ere Azkuna Zentroa izango da hip hopen eszena. Rap egile nabarmenak bildu digutu: 2zio (Iparralde), Acykal & Layiee (Londres), EH2000& Laize (Bizkaia). Honez gain, parkour, body modification eta scratch. Lotzen Parkour elkarteak jauzien ikastaro trinko bat eta erakustaldia eskainiko du. La Dotline Tattoo Studioren bidez tatuajearen mundua ezagutuko dugu. Azkenik, leheneko Euskal Herriko Scratch Txapelketa plazaratuko da.

**MARTXOAREN 19AN
IGANDEAREKIN**



DRAG. E
AZKUNA ZENTROA CACI
12:30

Logela Multimedia
(teatro familiarra, 4 urtetik 80 urtera)

60 min.

Logela Multimedia mugarik gabeko sortzaileak dira. Aurreko esperientzia antzerkia 3 dimentsioetan izan zen, honetan, berriz, errobotikaren teknika erabiliz ikuskizun berria dakarkigu. Aktoreak errobotak izango dira. Etorkizuna gaur. Gaiari dagokionez, natura babestea da teatro lan familiar honen mezu nagusia. Loreak, ura, lurra, argia eta airea behar ditugu bizirauteko eta teatro lan hone protagonistek baldintza egokiak bilatu behar dituzte hori lortzeko.



MARTXOAREN 19AN, IGANDEAREKIN

EUSKAL KANTUAK SINFONIKOAREN BIDEAN
CAMPOS ARETOA
19:00

**Aitor Amezaga + Donostiako Musika Eskola (Mikel Mate-
ren zuzendaritzapean) (musika sinfonikoa)**

120 min.

Oskorri, Ertzainak, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Itoiz, Sorotan Bele... taldeen kanturik ezagunenak orkestra sinfoniko baten eskutik entzuteko aukera paregabea. Moldaketa sinfoniko hauek Aitor Amezagak idatzi ditu eta Donostiako Musika Eskolako musikariek eszenaratuko dituzte.

Aitor Amezagak musika sinfonikoan eta jazz eremuan itzal luzea du. 80 bat diskotan kolaboratu du (Urko, Anje Duhalde, Gorka Knör, Txomin Artola, Mucedades, Akelarre, Zarama, Extremoduro...) eta hainbat filmeren soinu banda sortu ditu. Kontzertu honetan "Barruan" izeneko diskoa jarriko du eszenan estrainekez. Euskal kantagintzaren arrakastarik handienak moldaketa sinfonikoaren bidez.


**MARTXOAREN 22AN
ASTEAZKENAREKIN**

EUZKADI FILMA
BIZKAIA ARETOA
19:30**Josu Martinez**
(film historikoa)

90 min.

Euzkadi filma 1936an grabatu zen Euskal Herrian baina sekula ez zen estreinatu gure herrian. Euskal zinemaren historian agertzen zen aipamena baina aurkitu gabe zegoen. Josu Martinez zinegileak eta zinema ikerleak aurkitu du Parisen eta Loraldiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean filma Bilbora ekarri du estreinatu ahal izateko. Filma oso berezia da garaiko hiru dimentsiotan filmaturik baitago. Proiekzio historikoa.

**MARTXOAREN 23AN
OSTEGUNAREKIN**

BCN JAZZ KONEXIOA
CAMPOS ANTZOKIA. KUPULA.
20:00**Gorka Benitez Band +**
Angel Celada Band (jazz musika)

90 min.

Euskal Herriko jazz musikariek nekez aurkitzen dute bertan musikatik bizitzeko aukera. Hori dela eta, gure musikari ugari Bartzelonan bizi dira eta hiruburu honetako jazz giroan murgildurik daude. Loraldiak euskal musikariek gidatzen dituen bi talde nabarmen Bilbora ekarriko ditu. Biak goi mailakoak dira. Europako hobereenen artean koka daitezke. Banda bakoitzak haren azken musika lana aurkeztuko du, bukaeran bildu eta elkarrekin arituko dira. Campos antzokia jazz club bihurtuko da.

**MARTXOAREN 24AN ETA 25EAN
OSTIRALAREKIN ETA LARUNBATAREKIN****STRIP-TEASE**
ARRIAGA ANTZOKIA
20:00**Garbi Losada + Mireia Gabilondo + Fernando Bernues +
Jokin Oregi (antzerkia)**

60 min.

Lau eszena zuzendari batu ditugu esperientzia berri bat sortzeko. Lau istorio independente taularatuko dituzte. Laurak strip-tease gaiaz josita daude. Haritik tiraka lau strip-teaseren lekukoak izango gara. Bizitza erantztea, mugarik gabe.

**MARTXOAREN 24AN ETA 25EAN
OSTIRALAREKIN ETA LARUNBATAREKIN****EUTSIKO DIOGU, PETE! THE SEEGER BASQUE SESSIONS**
ARRIAGA ANTZOKIA
19:00**Lou Topet + Eñaut Elorrieta + Aiora Rementeria + Anje
Duhaldi + Harkaitz Cano + (folk-rock musika)**

90 min.

Lou Topet bandak Pete Seeger berpiztuko du haren abestien moldaketen bitartez, saio bakar eta ahaztezin batean. Musikari hilezkorrik baldin bada, horixe da Pete Seeger, AEBetako folk kantari garrantzitsuenetakoa. Itzal luzea du New Yorkeko musikariak, izan ere, Bruce Springsteen edo Bob Dylan bezalako artistek ahoan bizarrik gabe aitortu izan dute aitatzat dutela bakarlarria. Woody Guthriekin eskutik, AEBetako ezker mugimenduaren abangoardia musikala izan zen Seeger eta memorian iltzatuta ditugu Lincoln batailoiari abestutako bertsoak eta 1978an Euskal Herrira egin zuen bidaia hura. Gurean ere eragina izan zuen eta horrela, Benito Lertxundik, Fermin Muguruzak edota Garik ekarri zuten Seeger euskal kantagintzara. Arriagako eszenatokian Lou Topetekin batera Aiora Rementeria, Anje Duhalde, Eñaut Elorrieta... lagunak izango dira. Kantu klasikoez osatutako musika festa handia izango da.

MARTXOAREN 29AN ASTEAZKENAREKIN.



EUSKAL ZINEMA . IRRINTZAIAREN OIHARTZUNAK DOKUMENTALA AZKUNA ZENTROA

19:00

Iratxe Fresneda
(zinema dokumentala)

90 min.

Irrintziaren Oihartzunak dokumentala Iratxe Fresnedak errodatu duen aurrenekoa da eta arrakasta handiz estreinatu zen Zinemaldian. Euskarazko zinemagintzan lehenengo emakumearen bizitzan murgiltzen da begira garaikide batez. Mirentxu Loyarte iruinarrak sorkutza-lanetan emandako urratsak kontatzen ditu. Aitzindari baten historia. Horrez gain, emanaldi berean Thinking Football Film Laburren Lehiaketaren irabazleak ere proiektatuko dira.



MARTXOAREN 30EAN OSTEGUNAREKIN

OSKARA DOKUMENTALA + DANTZA NOR ZAREN JAKIN NAHI BADUZU, DANTZA EZAZU! AZKUNA ZENTROA. AUDITORIOA

19:30

Kukai (zinema dokumentala + dantza)

90 min.

Oskara koreografia 2016ko Donostiako Europako Kultur Hiriburuaren baitan estreinatu zen. Loraldiak Oskararen sormen lanri buruzko dokumentalaren estreinaldia aurkeztuko du. Arena Comunicaciok gidatu du dokumental hau, Nomadak TX eta Pura Vida filmak burutu ondoren. Baina oraingoan zinemaren irudiekin batera zuzen zuzenean hiru dantzari arituko dira pantaila aurrean. Zinema eta dantza batera. Esperientzia berritzaile bat euskal dantzagintzan eginiko lanik ederrenetako baten inguruan. Filmean nahiz koreografian hausnartu egiten da: komunikazioa, tradizioa, askatasuna, iragana, etorkizuna, Europa, sorkuntza, gorputza, lurra, artea, musika, identitatea, dantza...

MARTXOAREN 30EAN, OSTIRALAREKIN



ISABEL ITURBEREN BIZITZA ETA HERIOTZA

AZKUNA ZENTROA CAC I

19:30

ITU Banda + Kaluse
(poesia performance: literatura + musika psikodelikoa)

45 min.

ITU banda idazle gaztez osaturik dago. Gure literaturaren belaunaldi berri berria. Kaluse rock psikodelikoa jotzen duen taldea da. Talde sortzaile biak batu dira Isabel Iturberen bizitza kontatzeko. Pasaia eta Donostian kokaturik dago ikus-entzunezko ikuskaria eta aipatu emakume horren bilakaera irudikatzen du. Frankismotik transizioara, arrantza herritik industriaren gorakadara. ITU Banda eta Kaluse taldea ditugu gaur eguneko sormen paisaiaren kimu berriak.

MARTXOAREN 31AN OSTIRALAREKIN



ELEKTRONIKA GAUA STAGE LIVE.

21:00

Mamba Beat + Txoriak Negutegian
(musika elektronikoa)

90 min.

Dantzara bultzatzen duen magnetismo elektronikoak gidatuko du gaueko emanaldi hau. Alde batetik Mamba Beat Bilboko pop rock elektronikoaren erreferentzia eta bestetik Txoriak Negutegian Deustu aldean sortutako talde berritzailea izango dira bidaia elektroniko honen lemaizainak. Mamba Beat taldeak popa, indie rocka eta elektronikaren arteko ekosiste perfektua osatzen omen du. Hainbat komunikabidek Depeche Mode, U2 edo Kasabian taldeen eragina nabarmendu dute. Txorian Negutegian taldeak, berriz, rock elektroniko industrialara sortzen du. Taldekideak Zarama, Urreztieta Konexion, Urgabe, Bihotz Bakartien Kluba edo Katamalo bezalako esperientzietan ibili dira.

▼ **APIRILAREN 1EAN LARUNBATAREKIN**

BADOK EGUNA

KAFE ANTZOKIA

19:00

HESIAN + LUKIAK + IZARO+ ZWAP
(musika)



Badok egitasmoa, Berria egunkariaren babespean, euskal musikaren soinu berrien alde egin du Loraldiaren aurreko bi ediziotan. Oraingoan, jaialdi txiki baten formatua hartu du eta hiru kontzertu plazaratuko ditu egun berean. Gaurko musikaren bihozkadak neurtzeko parada.



IZARO
LA RIBERA

19:00

--

(--)

-- min.

Mallabiako kantari hau azken sasoiko ahots deigarrietakoa da. Katea ez da eteten eta euskal musikaren sortzaile berriak atea jotzen dabilta. Izarok ondo ederto islatzen du gaurko paisaia musikala.



LUKIAK
KAFE ANTZOKIA - KUTXA BELTZA

20:30

--

(--)

-- min.

Rock banda berri baten aurkezpena da. Lukiak taldearen kide batzuk Belakon aritzen dira eta ondo ederto ezagutzen dute rock independentea. Ezustea emateko sortuak dira.

APIRILAREN 1EAN LARUNBATAREKIN



HESIAN KAFE ANTZOKIA

22:30

--

(--)

-- min.

Hesian taldeak 10 urte bete ditu rockaren errepidean eta ibilbide emankor hau ospatzeko asmoa du. Loraldia Festibala ospakizun honen lekuko aparta izango da. Taldea ez dator bakarrik hamaika lagun ezagunez osatuko dute Kafe Antzokiko taula. Honez gain, urteurrena ospatzeko disko berri bat plazaratu du taldeak. Baina ez da dendetan salduko, kontzertuetan baino ezin izango da eskuratu. Sakanatik datorkigu musika bizia eta pop-rock indartsua. Sekulako jaia izango delakoan gaude.

APIRILAREN 2AN IGANDEAREKIN



GEROA GUGGENHEIM AUDITORIOA.

12:30

**Kirmen Uribe + Oihana Bartra + Alaia Martin + Anjel Unzu
(literatura, bertsolaritza eta musika)**

90 min.

Kirmen Uribek geroari buruzko testu bat sortu du Loraldian plazaratzeko. Aurreko edizioetan bezalaxe Andu Lertxundik eta Harkaitz Canok zabaldu duten hildoari jarraiki. Testua izango da ikuskari honen oinarria. Testuari, hain zuzen, erantzungo diote bertsolariek. Oihana Bartra eta Alaia Martin arituko dira lan honetan eta berbek sortuko duten giroari Angel Unzuk jarriko dio soinu-banda. Bidegurutze honetan hiru sormen arlo aurkitzen dira: literatura, bertsolaritza eta musika.

**APIRILAREN 2AN
IGANDEAREKIN.****AMURIZA KOPLEROAK**

CAMPOS ANTZOKIA

19:00

Agus Barandiaran + Xabier Berasaluze Leturia + Miren Amuriza + gonbidatuak (folk musika: trikitixa eta dantzariak)

90 min.

Nekez uler dezakegu gaurko bertsolaritza Xabier Amurizaren ekarpena kontuan hartu barik. 75 urtekin plazak utzi berri ditu baina bertsolari berritzaile honen itzala luzea da. Bertsoak egiteko molde berrien sortzailea, herri tradizioaren ikerlea, idazle emankorra eta hainbat musikarientzako (Oskorri, Imanol, Anje Duhalde...) kantugilea dugu Amuriza. Agus Barandiaran trikitilariak Amurizak sortu eta bildutako koplak hartu ditu eta ikuskari berri bat eraman du eszenara. Bizkaiko kantari nabarmen batzuekin elkarlanean Amurizaren koplek hartuko dute plaza.

**MARTXOAREN 5EAN
OSTEGUNAREKIN****LORALDIA ESKOLA!**

CAMPOS ARETOA

19:00

**Urretxindorra Ikastola eta
Deustuko Ikastola (sormena)**

60 min

Loraldia Eskola egitasmoa Bilbon abian jarri da Urretxindorra eta Deustuko ikastolan. Irailean hasi ziren lanean eskola barruan eta lanaren emaitza erakusteko tenorea heldu da. 10 eta 11 urteko ikasleak taula gainean izango dira euskal kulturaren transmisioari jarraiki.


**APIRILAREN 7AN
OSTIRALAREKIN**

EH PETRELI
CAMPOS ANTZOKIA.
19:30

Astrolabium(teatroa)

60 min.

Julio Villar abentura zalearen bizi puskak ditugu antzezlan honen abiapuntu. Munduari eman zion itzulia itsaontzi txiki batean eta bertan bizitakoa liburu baten jarri zuen. Orain antzezlan bihurtu da. Bizi apal eta betearen aldeko kantua.


**APIRILAREN 7AN
OSTIRALAREKIN**

OHOLTZA
AZKUNA ZENTROA CAC I
21:00

**Beñat Krolem + bertsolariak
(arte performance + bertsolaritza)**

50 minutu.

Artista bat eta bi bertsolari eszenan. Bat-bateako eraikuntza jokoa. Artistak (Beñat Krolemek) pieza multzoak erakiko ditu zuzen zuzen eta horiek izango dira abiapuntu bertsoak inprobisatzeko. Beraz, emanaldian bertan proiektutatu, diseinatu eta muntatzen diren egitura artistikoen probokazioari erantzungo diote bertsolariek. Performance artistikoa giro garaikidean murgildurik.



**APIRILAREN 8AN
LARUNBATAREKIN**



KELTIK
CAMPOS ANTZOKIA
19:00

**Xabi Aburruzaga + Zeltiar musikari gonbidatuak
(folk musika)**

90 min.

Xabi Aburruzaga trikitilariaren lan berriari Keltik jarri dio izena. Bertoko soinuaren eta zeltiar munduaren doinuek bat egiten duten bidegurutzea da. Euskal Herritik abiatutako bidaia da, arima zeltiarra darian herrialdeetara joan-etorrikoa. Eskozia, Irlanda eta Britainiako musikari handiak Bilboko ezkeraldeko sortzailearekin elkarlanean aritu dira. Loraldiari amaiera emateko folk zeltiarren festa handia.

A


LORALDIA



**MARTXOAN 14AN, 21EAN, 28AN
ETA APIRILEAN 4AN, ASTEARTEEKIN**

**ELKAR DENDAK
LORARTEAN
LORALDIA ESKOLA
LORALDIA ETA KORRIKA**

...




LORALDIA

ELKAR DENDETAN

EUSKAL KANTAGINTZA ETA LITERATURA IKASTAROA

MARTXOAREN 13AN, 20AN, 27AN ETA APIRILAREN 3AN, ASTELEHENETAN,

EUSKAL KANTAGINTZA ETA LITERATURA
Biba Fundazioa (Ronda Kalea, 7 kaleetan)
Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda
ikastaroa



LORARTEAN

ARTEA KALEAN

“BARRUKO AMETSAK” RAIMON BIKANDI

Irudiz osaturiko ingurumen-instalazio hauek Raimon Bikandi artistak burutu ditu eta Bilboko plazetan eta kaleetan loratuko dira. Argazki eskultura edo eskultura argazkiak dira eta loraldi baten loreak ekarriko dizkigute gogora.

Martxoan

7an eta 8an, Arriaga plazan, 17:00etatik 20:00etara.

17an eta 18an, Azkuna Zentroan, 17:00etatik 20:00etara.

19an, Azkuna Zentroan, 11:00etatik 14:00etara.

24an, 25ean eta 26an, 17:00etatik 20:00etara.

Apirilean

1ean, Kafe Antzoki kanpoan, 17:00etatik 22:00etara.

GOIZEKO EMANALDIA IKASLEENTZAT (INSTITUTUAK ETA EUSKALTEGIAK)

MARTXOAREN 7AN ETA 8AN, ASTEARTEAREKIN ETA OSTEGUNAREKIN.

EUSKAL MUSIKAREN BENETAKO HISTORIA

Arriaga Antzokia 11:00

EZ DOK HIRU

Patxo Telleria eta Mikel Martinez
(umore teatroa + musika) 60 min

Patxo Telleria eta Mikel Martinezen teatro lan berria. Bikoteatroa eratu zenetik barre algara handiak egin ditugu euren elkarrizketa zoroekin. Estilo propioa honetan umorea eta ironia dira arma bakarrak. Ez dok hiru taldeak estreinaldi honetan aurrerapausu bat eman du. Teatro xelebreaz gain, hiru musikari izango dituzte eszenan. Euskal Musikaren historiaren berrikusketa harrigarria eta barregarria izango da, zalantzarik gabe.

MARTXOAREN 31AN OSTIRALAREKIN.

EH PETRELI

Campos Antzokia 11:00

ASTROLABIUM

(teatroa) 60 min

Julio Villar abentura zalearen bizi puskak ditugu antzezlan honen abiapuntu. Munduari eman zion itzulia itsaontzi txiki batean eta bertan bizitakoa liburu baten jarri zuen. Orain antzezlan bihurtu da. Bizi apal eta betearen aldeko kantua. Antzezlan honek balore handiak lantzen ditu.



WWW.LORALDIA.EUS




FUNDACIÓN BILBAO 700
III MILLENIUM FUNDAZIOA

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK:



ARETOAK:

GUGGENHEIM BILBAO



BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO



La FuNdiciOn ARETOA

LA ETXERRETTA FERRAZA ARETOA RIBERA



WWW.LORALDIA.EUS

UZABERRO EUSKAL KULTURALDIA
TIEMPO DE FLORES PARA LA CULTURA VASCA
TEMPS OF FLOWERS FOR THE BASQUE CULTURE
LE TEMPS DES FLEURS DE LA CULTURE BASQUE



LORALDIA

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

PRIMADERAKO FESTIBALA BILBON
WWW.LORALDIA.EUS

- 1- AZKUNA ZENTROA
 - 2- GUGGENHEIM
 - 3- ARTE EDERRETAKO MUSEOA
 - 4- LA FUNDICION
 - 5- LA RIBERA
 - 6- ARRIAGA ANTZOKIA
 - 7- BILBOKO ITASADARRA ITSAS MUSEOA
 - 8- CAMPOS ANTZOKIA
 - 9- KAFE ANTZOKIA
 10. REKALDE ARETOA
 - II. CAFE BAR BILBAO
- ELKAR DENDAK



WWW.LORALDIA.EUS



   2017

WWW.LORALDIA.EUS

FESTIBALA@LORALDIA.EUS



BILBON PRIMADERA FESTIBALA